
MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.U.

Azpiegiturak, S.A.U. Ekonomia Sustapen Sailera atxikitako foru-sozietate publikoa da eta bere sozietate-xedean honako jarduketa hauek sartzen dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa-eremuarekin lotutako azpiegitura- eta ekipamendu-obrak proiektatu, eraiki, kontserbatu eta ustiatzea.
- Negozio-zentroak sortu eta kudeatzea, enpresa-instalazioak urbanizatu eta egokitzea, eta azpiegitura eta ekipamendu publikoak hornitzea enplegua sortzen duten jarduketak garatzeko.
- Lurzorua erosi eta haren sustapen publikoa egitea, interes publikoko jarduketa ekonomikoetarako, industria eta zerbitzuen sektoreetarako; eta enpresak bilatzea, sozietateak sustatuko jarduketetan kokatzeko.
- Lurzorua erosi eta sustatzea eta etxebizitzak egiteko erabiliko diren bizitegi-arloak urbanizatu eta kudeatzea, bai eta etxebizitzak eraikitzea ere, babes publikoko araubideren batean daudenei arreta berezia emanez.

Sozietatea 2010eko uztailaren 06an eratu zen, Azpiegitura, S.A.U., Bizkailur, S.A.U., Bideak Bizkaiko Bideak, S.A.U. Eta Kirolgintzan, S.A.U. foru-sozietate publikoek bat egin zutenean.

Azpiegiturak, S.A.U. sozietateak lau sozietate fusionatuen ondareak multzoan jaso zituen eta sozietateok beren akziodun bakarrarekin edo hirugarrenekin zituzten hitzarmen, ardua eta kontratuetan subrogatu da.

Sozietatearen jarduketa-arlo nagusiak honela defini daitezke, laburbilduta:

- Enpresa-azpiegiturak kudeatzea, Bizkaiko lurraldean enpresen sorrera eta finkapena errazteko asmoz. Jarduketa hori bi jarduketa-mota nagusitan banatzen da:

Azpiegiturak, S.A.U., es una Sociedad Pública Foral adscrita al Departamento de Promoción Económica, cuyo objeto social contempla las siguientes actividades:

- Proyectar, construir, conservar y explotar las obras de infraestructuras y equipamientos relacionados con el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Crear y gestionar centros de negocio, urbanizar y adecuar instalaciones empresariales, dotación de infraestructuras y equipamientos públicos para el desarrollo de actividades generadoras de empleo.
- Adquirir y realizar la promoción pública de suelo para actividades económicas de interés público, par los sectores industrial y servicios, captación de empresas para su ubicación en las actuaciones promovidas por la sociedad.
- Adquirir y promocionar suelo y urbanización y gestión de áreas residenciales destinadas a viviendas, así como la construcción de viviendas, destacando las sometidas a algún régimen de protección pública.

La Sociedad fue constituida el 6 de julio de 2010 por fusión de las Sociedades Públicas Forales Azpiegitura, S.A.U., Bizkailur, S.A.U. Bideak Bizkaiko Bideak, S.A.U. y Kirolgintzan S.A.U.

Azpiegiturak, S.A.U. recibió los patrimonios en bloque de las cuatro Sociedades fusionadas, y subrogándose en cuantos convenios, encomiendas y contratos mantenían éstas con su accionista único o con terceros.

Las áreas principales de actividad de la sociedad pueden definirse de forma resumida de la siguiente manera:

- Gestión de infraestructuras empresariales, con el objeto de facilitar el asentamiento y creación de empresas en el territorio de Bizkaia. Esta actividad se divide en dos tipos

1. Pertsona ekintzaileentzako azpiegiturak sortzea.
 2. Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea, finkatutako enpresak bertan kokatzeko azpiegiturak hornitu ahal izateko.
- Pertsona nagusientzako edo ezintasun-mota desberdinak dituzten pertsona-taldeentzako gizarte-ekipamenduak eraiki eta ustiatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak aginduta.
 - Foru-titulartasuneko kirol-azpiegiturak eraiki eta kudeatzea.
 - Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana. Horren bidez, Bizkaian etxebizitzak eraikitzea bultzatzen da, lurralde historikoko herritarren eskura ahalik eta etxebizitza gehien jartzeko, prezio eskuragarrian.

Jarduketa-ildo nagusiak

1. Enpresa-azpiegiturak kudeatzea.
 - 1.a) Ekintzaileentzako azpiegiturak.

Industria-azpiegiturak kudeatzea.

Jarduketa-arlo honetan pertsona ekintzaile, enpresa, zentro eta erakundeentzat pentsatutako azpiegiturak sortzen dira, baldin eta horiek Bizkaia garapen iraunkor eta orekatuan lagunduko duen enpresa-proiektua badaukate. Hori horrela, sozietate berrien sorrera babestuko da eta lehentasuna emango zaie kudeaketan eduki berritzaile altua (bai teknologia-aldetik, bai kudeaketa-sistemetan) dutenei. Ardatz horietan eutsiko da Bizkaiko Lurralde Historikoko garapen ekonomikoa, geroz eta globalizatuagoa eta lehiakorragoa den mundu honetan.

principales de actividad:

1. Creación de infraestructuras para personas emprendedoras.
 2. Promoción y adquisición de suelo par el sector industrial, dirigido a dotar infraestructuras para el asentamiento de empresas ya consolidadas.
- Construcción y explotación de equipamientos sociales, destinados a personas mayores o a colectivos de personas con distintos tipos de discapacidades, y por encomiendas del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.
 - Construcción y gestión de infraestructuras deportivas de titularidad foral.
 - Plan Foral de Actuación en vivienda, por lo que se promueve la construcción de vivienda en Bizkaia para poner a disposición de los ciudadanos del Territorio Histórico el mayor número posible de viviendas a precio asequible.

Líneas generales de actuación

1. Gestión de infraestructuras empresariales
 - 1.a) Infraestructuras para emprendedores

Gestión de infraestructuras Industriales

Esta rama de la actividad se encarga de la creación de infraestructuras pensadas para personas emprendedoras, empresas, centros o entidades que tengan un proyecto empresarial que contribuya al desarrollo sostenible y equilibrado de Bizkaia, apoyando la creación de nuevas Sociedades, primando aquellas que en su gestión posean alto contenido innovador, tanto en lo tecnológico como en sus sistemas de gestión. Ejes estos, en los que, en un mundo cada vez más globalizado y competitivo, se sustente el desarrollo económico del Territorio Histórico de Bizkaia.

Gainera, elkartegietan kokatutako doako espazioak ematen dizkie ekimen eta ideiekin beren lehen urratsak ematen dituzten sustatzaileei. Hori horrela, beren bideragarritasuna aztertzen da, beren proiektuak garatzen dira eta gure lurraldeko enpresa-sarea hedatuko duten enpresak sortzea helburu duen ekimenak garatu gabe gelditzea saihesten da.

Elkartegia programa, 1985ean sortu zenetik, eratu berri diren enpresa-ekimenen eta lehendik zeudenen azpiegiturak diseinatu, eraiki eta mantentzeaz arduratu da. Horretarako, enpresok beren jatorrian iraun eta garatzeko bultzada eman du eta administrazio ezberdinekin aritu da lankidetzan, enpresak beren kabuz bilatzeko gai ez diren eskualdeei laguntza ematen dieten azpiegiturak aztertu eta kokatzeko orduan.

Bere xedea garatzeko, Azpiegiturak, S.A. sozietateak moduluak eskaintzen ditu Elkartegiak sarearen bidez. Sare honek erreferentea izan nahi du enpresa-sarean, bere jarduketa gure instalazioetan garatzen duen pertsona orori balio erantsia emanez. Horretarako, tamaina ezberdinetako moduluak eskaintzen dizkiegu industria eta zerbitzuetako enpresei, baldintza ekonomiko onenetan, % 50erainoko hobari eta guzti sortu berri diren edo lanpostu berriak sortzen dituzten enpresentzat. Gaur egun eraikin modernoak eta teknologikoki aurreratuak eraikitzen ditu, eta, horietan, bilera-aretoak, wifi, harrera-zerbitzuak, etab. jartzen ditu.

Elkartegi desberdinen egungo okupazioa honako hau da:

También facilita espacios gratuitos ubicados en los elkartegis, a todo aquel promotor o promotora que con iniciativa e ideas, den sus primeros pasos, explorando la viabilidad y desarrollando su proyecto, tratando de conseguir que ninguna iniciativa, encaminada a la creación de empresas que amplíen el tejido empresarial de nuestro Territorio, quede sin desarrollar.

El programa Elkartegia desde su creación en 1985, se ha dedicado al diseño, construcción y mantenimiento de infraestructuras, que albergan tanto a las iniciativas empresariales de nueva creación, como a las ya existentes consolidando de esta forma su permanencia y desarrollo en su lugar de origen, colaborando, además, con las distintas administraciones en el estudio y ubicación de infraestructuras que favorezcan aquellas comarcas que por sí mismas no sean ellas solas capaces de ser tractoras en la captación de empresas.

Azpiegiturak, S.A para el desarrollo de su misión ofrece módulos a través de la Red Elkartegiak que pretende ser un referente en el tejido empresarial, constituyendo un valor añadido para todo aquel que desarrolle su actividad en nuestras instalaciones, para lo que ofrecemos módulos de diferentes tamaños a empresas, tanto industriales, como de servicios, en las mejores condiciones económicas, con bonificaciones de hasta el 50% para las empresas de nueva creación y aquellas que generen nuevos puestos de trabajo. En la actualidad construye edificios modernos y avanzados tecnológicamente, con salas de reuniones, wifi, así como servicios de recepción, etc.

La ocupación actual de los diferentes elkartegis es la siguiente:

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.U.

Udalerría / Municipio	Elkartegia	Bulegoen moduluak Módulos de Oficinas		Modulu industrialak Módulos Industriales	
		Okupatuta Ocupados	Okupatu gabe Libres	Okupatuta Ocupados	Okupatu gabe Libres
BARAKALDO	Barakaldo	17	19	-	-
MUNGIA	Belako 2	6	0	15	13
BILBAO	Boluetá	5	6		
AMOREBIETA	Boroa	12	6	19	9
DURANGO	Landako	6	6	-	-
DERIO	Parque Tecnológico	13	10	-	-
SONDIKA	Sondika	38	33	23	4
TRAPAGARAN	Trapaga 17	13	8	-	-
MARKINA	Markina	-	-	9	20
	Guztira / Total	110	88	66	46

Enpresa jardueri eusteko gauza izango diren azpiegituren eskaintza zabaltzen jarraitu ahal izateko 2011n Orduñako Elkartegiaren eraikuntza hasi da. Elkartegi horrek 17 pabiloi izango ditu, gutxi gorabehera 375 m²-ko azalerakoak; halaber, bi solairuko eraikin bat edukiko du. 8 bulegorekin eta erabilera konpartiturako beste lokal batzuekin. 2012ko udaberrian amaituko da Getxoko Elkartegiaren eraikuntza; azpiegitura horrek 22 bulego ditu, hain zuzen ere 35 eta 65 m² arteko azalerakoak. Azkenik, 2012tik aurrera Balmasedako Elkartegi berriaren betearazpenari ekingo zaio.

Aipatutako elkartegiez gain, sozietateak beste eraikin batzuk ditu: "Centro de Tecnologías Aeronáuticas" izenekoa, Zamudioko Teknologia Parkean. Bilbon, Arana 8 eraikinean, B.E.A.Z. merkataritzako foru-sozietatea kokatzen da.

2011 urtean zeha Biscaytik proiektuaren egoitza

Con el objetivo de seguir ampliando la oferta de infraestructuras que permitan albergar iniciativas empresariales, en 2011 se ha iniciado la construcción de Orduña Elkartegia que dispondrá de 17 pabellones con superficies aproximadas de 375 m², así como un edificio de dos plantas que albergará 8 oficinas y diversos locales de uso compartido. En la primavera de 2012 finalizará la construcción del Elkartegi de Getxo que dispondrá de 22 oficinas de entre 35 y 65 m² de superficie. Finalmente, a partir de 2012 se iniciará la ejecución de un nuevo Elkartegi en Balmaseda.

Además de los elkartegis citados, la Sociedad cuenta con otros inmuebles que albergan al Centro de Tecnologías Aeronáuticas en el Parque Tecnológico de Zamudio y en Bilbao, en el Edificio Arana 8, se ubica la Sociedad Mercantil Foral B.E.A.Z.

Durante 2011 ha finalizado la construcción del

den eraikinaren eraikuntza amaitu da eta elementu hori sozietatearen ondarean integratu da. Eraikin horretan, hasteko eta behin, izen bera duen fundazioa dago kokatuta eta bere xedea administrazioari informazioa zuzkitzeko teknologien aplikazioan Bizkaia benetako erreferente bihurtzea da.

1.b) Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea.

Lursailak erostea.-

Industriaren sektorerako lurzorua sustatu eta erostea, industria-poligonoak urbanizatu eta kudeatzea, eta jarduketak eta enpresak identifikatu eta aurkitzea gero kokatzeko, sozietatearen xedean sartzen diren jarduketak dira.

Horren harira, 2011. urtean, sozietateak erabiltzen dituen parametro tekniko eta ekonomikoen barruan sartzen diren eta industria-erabilera duten lursailen ikerketa eta aurre-diagnostikoa egin dira.

2012 urtean zehar, egin diren kalkuluaren arabera, tokiko hirigintzako plangintzarako beharrezkoak diren aldarazpenen sustapenean jarraituko da, zertarako-eta industri izaerako jarduketak sustatzeko eta garatzeko.

Industria-sustapenak.-

Toki-erakundeekin lankidetzan, enplegua sortu eta eragiten duten jarduketak garatzen ditugu eta horiek industria-sektoreen garapena bultzatzen dute.

Horrez gain, aurreikusitakoari jarraiki, Azpiegiturak sozietatearen partaidetzak gora egingo du, jarduketa ekonomikoko zonen kudeaketa eta tokiko garapena helburutzat duten sozietate publikoetan.

2. Gizarte-ekipamenduak eraiki eta kudeatzea.

edificio que alberga la sede del proyecto Biscaytik, que se ha integrado en el patrimonio de la Sociedad. Este edificio, en el que se localiza la fundación del mismo nombre, pretende convertir a Bizkaia en referente de la aplicación de las tecnologías de la información en la Administración.

1.b) Promoción y adquisición de suelo para sector industrial

Adquisición de terrenos.-

La promoción y adquisición de suelo para el sector industrial, urbanización y gestión de polígonos industriales, y la identificación y localización de actuaciones y empresas para su ubicación, son actividades dimanantes del propio objeto social de la sociedad.

En este sentido, durante el año 2011 se ha procedido a la prospección y prediagnóstico de terrenos de uso industrial que se integren dentro de los parámetros técnicos y económicos que maneja la sociedad.

Durante el año 2012 se prevee continuar con la promoción de las modificaciones necesarias en el planeamiento urbanístico local, a fin de promocionar y desarrollar actuaciones de carácter industrial.

Promociones industriales.-

En colaboración con las entidades locales, desarrollamos actuaciones tractoras y generadoras de empleo, que culminan con el desarrollo de sectores industriales.

También se estima que aumente la participación de Azpiegiturak en sociedades de carácter público cuyo objeto social sea la gestión y desarrollo local de zonas de actividades económicas.

2. Construcción y gestión de equipamientos sociales

Azpiegiturak, S.A.U.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte-behar geroz eta ugariagoei erantzuna emateko ardura etengabea du eta, ondorioz, jarduketa-bolumena nabarmen igo da pertsona nagusiei arreta emateko eremuan. Hori dela eta, 2010. urtearen amaierarako, AZPIEGITURAK sozietateak 882 plaza eskaini behar izan ditu eguneko zentroetan eta 1.542 egoitzetan.

Era berean, gizarte-azpiegituren eraikuntzari dagokionez, pertsona nagusientzako plazak dituzten eraikinen proiektua kudeatu du, eraikinak egin ditu eta ekipamenduz bete ditu; baina horretaz gain, AZPIEGITURAK sozietateak aginduak jaso ditu ezintasunen bat duten pertsonentzako eta beste talde batzuentzako egoitza eta eguneko zentroak egiteko proiektuak prestatu, eraikinak egin eta ekipamenduz betetzeko. Guzti hori, 2011. urtean bukatu eta abian jarri diren honako ekipamendu hauetan gauzatu da:

- Txurdinagako egoitza soziosanitarioa, menpekotasunak dituzten pertsonentzat eta hartutako kalte zerebraleko pertsonentzat eguneko zentroa ere badena.
- Apartamentu tutelatuak Txurdinagan, Bilbo, ezintasunak dituzten pertsonentzat.
- Eguneko Zentroa Barrikan, ezintasun intelektuala duten pertsonentzat.
- Eguneko Zentroa Begoñan, Bilbo, ezintasun intelektuala duten pertsonentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren asmo eta borondate sendoa da gizarte laguntza behar duten talde guztiei ematen zaien zerbitzu horretan hobetzen jarraitzea eta, ondorioz, AZPIEGITURAK sozietateak arlo horretan duen jardueraren bolumena % 13 inguru haziko da 2011 ekitaldiarekin erkatuta. Horrek ahalegin handia eskatuko du agindu zaizkion jarduketak era egokian eta onean betetzeko.

Sozietatean datorren ekitaldietarako

La constante preocupación de la Diputación Foral de Bizkaia por dar respuesta a las crecientes necesidades sociales del Territorio Histórico de Bizkaia, ha exigido un notable incremento del volumen de actividad en el ámbito de la atención a Personas Mayores, que le llevará a AZPIEGITURAK a ofrecer 917 plazas de centro de día y 1.542 de residencia al finalizar el año 2011.

Así mismo, en el campo de la edificación de infraestructuras sociales, además de gestionar el proyecto, construcción y equipamiento de las infraestructuras que albergan las plazas para personas mayores señaladas, AZPIEGITURAK ha recibido encomiendas para el proyecto, construcción y equipamiento de varias residencias y centros de día para discapacitados y para otros colectivos, que se han materializado en los siguientes equipamientos cuya finalización y puesta en funcionamiento se produce en 2011:

- Residencia Sociosanitaria en Txurdinaga para personas dependientes y centro de día para personas con daño cerebral sobrevenido.
- Apartamentos tutelados en Txurdinaga, Bilbao, para personas con discapacidad.
- Centro de día en Barrika para personas con discapacidad intelectual.
- Centro de día en Begoña, Bilbao, para personas con discapacidad intelectual.

La firme voluntad de la Diputación Foral de Bizkaia de seguir mejorando la asistencia social prestada a todos los colectivos que la necesitan, tendrá como consecuencia que el volumen de actividad de AZPIEGITURAK en este ámbito crecerá en torno al 13% respecto a 2011, lo que exigirá un importante esfuerzo responder de forma satisfactoria a las actuaciones que le han sido encomendadas.

La actividad prevista de la Sociedad para los

Azpiegiturak, S.A.U.

aurreikusitako jarduketak hainbat kategoriatan sailka daitezke. Hona hemen horien laburpena:

A.- Gizarte-azpiegituretarako proiektuak idatzi, eraikinak egin eta ekipamenduz betetzea.

Sozietateak Gizarte Ekintza Sailaren aginduak jasotzen ditu, gizarte-azpiegituretarako eraiki edo/eta egokitzeko, bai pertsona nagusientzat, bai Sailaren jarduketa-eremuan sartzen diren beste talde batzuentzat.

A.1.- Pertsona nagusientzako azpiegituretarako.

Pertsona nagusiei arreta emateko dagoen eskari geroz eta ugariagoa estaltze aldera, AZPIEGITURAK sozietateak egoitza berriak eraiki behar ditu (horietako batzuetan eguneko zentroaren zerbitzua ere egongo da). Plaza berriak eskainiko dira lehendik zeudenez gain (B.- puntu zehaztutakoak), pertsona nagusien arretara egokitutako ikuspegia osatzeko.

Honako egoitzen eta eguneko zentrodun egoitzen ardurak egikaritze-fasean daude eta aurrerapen-maila ezberdina dute. 2013. urtean amaitu eta ordutik aurrera martxan jartzea aurreikusita dago:

- Egoitza Galdakaon.
- Eguneko zentroa duen egoitza Zorrotzan (Bilbon).

Azpiegitura horietako bakoitzean, batera esleitu dira honako zeregin hauek: proiektua idaztea, eraikinak egitea eta ekipamenduz betetzea, eta gehienez 40 urtez ustiatzea. Esleipendunen kontu gelditu da eraikuntza-fasearen finantziazioa.

A.2.- Ezintasunen bat duten pertsonentzako azpiegituretarako.

2012ko ekitaldian eta hurrengoetan, AZPIEGITURAK sozietateak honako ardurak

próximoos ejercicios puede clasificarse en diferentes categorías, que se resumen como sigue:

A.- Encomiendas para proyectar, construir y equipar infraestructuras sociales

La Sociedad recibe encomiendas del Departamento de Acción Social para edificar y/o acondicionar infraestructuras sociales, destinadas tanto a personas mayores como a diversos colectivos dentro del ámbito de actuación del Departamento.

A.1.- Infraestructuras para Personas Mayores

Con el objetivo de cubrir la creciente demanda de atención a personas mayores, AZPIEGITURAK tiene encomendada la construcción de nuevas residencias (algunas de las cuales incorporan también centro de día). La oferta de nuevas plazas se sumará a la de las ya existentes (detalladas en el punto B.-), para conformar un panorama adecuado a la atención de nuestros mayores.

Las encomiendas de las siguientes Residencias y Residencias con Centro de Día se encuentran en fase de ejecución, con diferente grado de avance, estando prevista su finalización y consiguiente puesta en marcha a partir de 2013:

- Residencia en Galdakao
- Residencia con centro de día en Zorroza - Bilbao

En cada una de estas infraestructuras ha sido licitada conjuntamente la ejecución del proyecto, construcción y equipamiento, y la explotación por un período máximo de 40 años de la misma, quedando por cuenta de los propios adjudicatarios la financiación de la fase de construcción.

A.2.-Infraestructuras para Personas con Discapacidad

En el ejercicio 2012 y sucesivos, AZPIEGITURAK ejecutará los siguientes encargos del

Azpiegiturak, S.A.U.

eskatuko dizkio Sailari, ezintasunen bat duten pertsonentzat:

- Egoitza Gueñesen: adimen urritasunen bat duten pertsonentzako egoitzaren proiektua idaztea, eraikina egitea eta ekipamenduz betetzea Gueñesen. Aurreikusitako kostua 2,8 milioi eurokoa da eta Gizarte Ekintza Sailak finantzatuko du, osorik.

Idatz zati honetan, eraikin berberaren barruan ezintasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuak eta besteren laguntza behar duten pertsona nagusientzako zerbitzuak jasotzen dituzten bi jarduketa daude, biak Gizarte Ekintza Sailak finantzatuak:

- Egoitza eta eguneko zentroa Ondarroan: pertsona nagusientzako eguneko zentroaren proiektua idaztea, eraikinak egitea eta ekipamenduz hornitzea; adimen urritasunen bat duten pertsonentzako egoitzaren proiektua idaztea, eraikinak egitea eta ekipamenduz hornitzea; eta Ondarroan Gizarte Zerbitzuen Bulegoaren proiektua idaztea eta eraikinak egitea. Aurreikusitako inbertsioa 3,8 milioi eurokoa da, guztira. Horietatik 265.640 euro Ondarroako Udalak jarriko ditu, Gizarte Zerbitzuen Bulegoa finantzatzeko.
- Pertsona nagusientzako egoitza eta ezintasunen bat duten pertsonentzako egoitza Ereñon. Aurreikusitako inbertsioa 4,1 milioi eurokoa da guztira.

B.- Ustiapena:**B.1.- Besteren laguntza behar duten pertsona nagusientzako gizarte-azpiegiturak ustiatzea.**

Sozietateak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskatuta, besteren laguntza behar duten pertsonen eguneko zentroetan eta egoitzetan plazak kudeatzeko zerbitzuak ematen ditu, enpresa espezializatuei zerbitzua eslehituta. Egun kudeatutako plazak eta plaza berrien

Departamento con destino a personas con discapacidad:

- Residencia en Gueñes: encomienda para la realización del proyecto, construcción y equipamiento de una Residencia para personas con discapacidad intelectual en Gueñes, con un coste previsto de 2,8 millones de euros, financiados íntegramente por el Departamento de Acción Social.

Dentro de este apartado incluimos también dos actuaciones que acogen dentro del mismo edificio servicios para personas con discapacidad y servicios para personas mayores asistidas, financiadas ambas por el Departamento de Acción Social:

- Residencia y centro de día en Ondarroa: se encomienda la realización del proyecto, construcción y equipamiento de un Centro de Día para personas mayores; proyecto, construcción y equipamiento de una Residencia para personas con discapacidad intelectual y proyecto y construcción de una Oficina de Servicios Sociales en Ondarroa. La inversión total prevista es de 3,8 millones de euros, de los que 265.640 euros serán aportados por el Ayuntamiento de Ondarroa para la financiación de la oficina de servicios sociales.
- Residencia para personas mayores y residencia para personas con discapacidad en Ereño. La inversión total prevista es de 4,1 millones de euros.

B.- Explotación**B.1.- Explotación de infraestructuras sociales para Personas Mayores Asistidas.**

La Sociedad realiza, a encomienda del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la prestación de servicios de gestión de plazas de centros de día y residencias para personas mayores asistidas, mediante la adjudicación del servicio a empresas

aurreikuspena honako hauek dira:

B.1.1.- Pertsona nagusientzako eguneko zentroen ustiapena.

2012. urtean, eguneko zentro hauek ustiatzen jarraitu nahi da (parentesi artean adierazi da jarduketa zein urtetan hasi zuten):

- Leioa (2002), San Adrián (2002), Zorrotza (2002), Sestao Berria (2003), Galdakao (2004), Otxarkoaga (2004), Ugao – Miraballes (2006), Santutxu (2007), Abanto-Zierbena (2008)), Bilbao-Isozaki Atea (2011).

B.1.2.- Pertsona nagusientzako egoitzen eta eguneko zentrodun egoitzen ustiapena.

2012. urtean, egoitza eta eguneko zentrodun egoitza hauek ustiatuko dira (parentesi artean adierazi da jarduketa zein urtetan hasi zuten):

- Sondikako egoitza (2004), Muskizko egoitza (2005), Sestaoko egoitza (2006), Amorebieta-Etxanoko egoitza (2011).
- Eguneko zentrodun egoitza Durangon (2005), eguneko zentrodun egoitza Txurdinagan -Bilbo- (2006), eguneko zentrodun egoitza Basaurin (2008), eguneko zentrodun egoitza Ortuellan (2007), eguneko zentrodun egoitza Zamudion (2008), eguneko zentrodun egoitza Rekalden (2008), eguneko zentrodun egoitza Ermuan (2009), eguneko zentrodun egoitza Balmasedan (2009), eguneko zentrodun egoitza Arrigorriagan (2009), eguneko zentrodun egoitza Bilbo Zaharrean (2011).

especializadas. Las plazas gestionadas en la actualidad y la previsión de nuevas plazas se detallan a continuación:

B.1.1.- Explotación de Centros de Día para Personas Mayores.

Durante 2012 se prevé continuar la explotación de los siguientes Centros de Día, cuyo año de inicio de actividad se indica entre paréntesis:

- Leioa (2002), San Adrián (2002), Zorroza (2002), Sestao Berria (2003), Galdakao (2004), Otxarkoaga (2004), Ugao – Miraballes (2006), Santutxu (2007), Abanto y Zierbena (2008), Bilbao-Isozaki Atea (2011).

B.1.2.- Explotación de Residencias y Residencias con Centro de Día para Personas Mayores.

Durante 2012 estarán en explotación las siguientes Residencias y Residencias con Centro de Día, cuyo año de inicio de actividad se indica entre paréntesis:

- Residencia en Sondika (2004), Residencia en Muskiz (2005), Residencia en Sestao (2006), Residencia en Amorebieta (2011).
- Residencia con Centro de Día en Durango (2005), Residencia con Centro de Día en Txurdinaga-Bilbao (2006), Residencia con Centro de Día en Basauri (2008), Residencia con Centro de Día en Ortuella (2007), Residencia con Centro de Día en Zamudio (2008), Residencia con Centro de Día en Rekalde (2008), Residencia con Centro de Día en Ermua (2009), Residencia con Centro de Día en Balmaseda (2009), Residencia con Centro de Día en Arrigorriaga (2009), Residencia con Centro de Día en Bilbao La Vieja(2011).

3. Kirol-azpiegiturak eraiki eta kudeatzea.

Sozietateak, bere ondarean, bi kirol instalazio ditu eta horien kudeaketa ustiapen horietan espezializatuak diren izaki pribatuekiko kontratuen bidez egiten da. 2012an jarduera horiekin jarraitzea aurreikusi da, ondoko xehetasun hauen arabera:

- Pilotalekuen eraikina eta Kirol Etxea: Instalazio hau 2011 urtean jarri da abian eta bertan pilotaren arloan oso garrantzitsuak diren ekitaldiak egin dira. 2012 urterako jardueren egutegi garrantzitsua aurreikusi da, Bizkaian pilotaren arloa berpizteko balioko dutenak. Eraikinean, halaber, Bizkaiko kirol federazioetako askoren egoitzak daude.
- Meaztegi Golf: kirol-instalazio honen kudeaketarekin jarraituko da.

4. Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana.

Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Planaren helburuak Bizkaiko etxebizitzaren merkatuan esku hartzea eta lurralde historikoko herritarren esku ahalik eta etxebizitza gehien prezio eskuragarrian jartzea dira.

Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana honela planteatu eta ulertu behar da:

- Ezarritako Etxebizitza Politika desberdinen jarduketa-esparrua osatzen duen esku-hartze edo ekintza-tresna.
- Etxebizitzen eskaintza Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden eskaeren beharrian berezietara egokituko duten aukerak areagotzeko tresna.

3. Construcción y gestión de infraestructuras deportivas

La Sociedad tiene en su patrimonio dos instalaciones deportivas cuya gestión realiza a través de contratos con entidades privadas especializadas en su explotación. Durante 2012 se prevé continuar dicha actividad, según se detalla a continuación:

- Edificio de frontones y Kirol Etxea: Esta instalación ha sido puesta en marcha durante 2011 y ha acogido eventos de gran importancia en el mundo de la pelota. Para 2012 está previsto un importante calendario de actividades, que revitalizarán el deporte de la pelota en Bizkaia. El edificio alberga también las sedes de un elevado número de federaciones deportivas bizkainas.
- Meaztegi Golf: Se continuará con la gestión de esta instalación deportiva.

4. Plan Foral de Actuación en Vivienda

El Plan Foral de Actuación en Vivienda tiene como fin el de intervenir en el mercado de la vivienda en Bizkaia y poner a disposición de los ciudadanos del Territorio Histórico el mayor número posible de viviendas a un precio asequible.

El Plan Foral de Actuación en Vivienda se plantea y ha de ser entendido como:

- Un instrumento de intervención o acción que complementa el marco de actuación de las diferentes Políticas de Vivienda establecidas.
- Un instrumento que incrementará las posibilidades para adecuar la oferta de vivienda a las necesidades singulares de la demanda en el Territorio Histórico de Bizkaia.

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.U.

- Etxebizitzari buruzko erakunde-politikak aplikatzean garapen berritzailea izateko eredia.
- Un modelo de desarrollo innovador en la aplicación de políticas institucionales de vivienda.

Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Plana Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen lankidetzarekin egiten ari da, babes publikoko araubideren bat duten etxebizitzak garatu eta sustatzeko asmoz.

El Plan Foral de Actuación en Vivienda se está ejecutando en colaboración con los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia para la promoción y desarrollo de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública.

2011-12-31rako jarduketetan aurreikusitako egoera honakoa da:

La situación prevista de las actuaciones al 31-12-2011 es la siguiente:

Bukatutako promozioak:

Promociones finalizadas:

Jarduketa Actuación	Etxebizitza kop. Nº de viviendas	Saldu diren etxebizitzen kop. Nº de viviendas vendidas
Abanto Zierbena – La Trinidad	14	14
Abanto Zierbena – San Fuentes	60	58
Ajangiz	24	24
Arantzazu	15	15
Areatza	30	11
Arratzu UE-3	12	12
Bedia	18	16
Elantxobe	12	12
Ereño	24	2
Etxebarria	16	9
Fruiz	36	30
Gueñes Arangoiti	74	33
Gueñes – Kultur Etxea	32	32
Ibarrangelu	14	14
Ispaster	12	12
Lekeitio	18	18
Lemoiz	72	49
Meñaka	16	15
Munitibar	12	0
Urduña	14	12
Turtzioz	32	32

Jarduketa Actuación	Etxebizitza kop. Nº de viviendas	Saldu diren etxebizitzen kop. Nº de viviendas vendidas
Zierbena	70	58
Guztira / Total	627	471

Eraikitze obrak egite fasean dauden etxebizitzak :

Viviendas en fase de ejecución de obras de edificación:

Jarduketa / Actuación	Etxebizitza kop. Nº de viviendas
Amorebieta – Arreibi	151
Arratzu UE-2	16
Galdakao – 1. fasea / 1ª Fase	72
Karrantza	40
Lanestosa	24
Nabarniz	8
Sukarrieta	4
Guztira / Total	315

Sozietateak, halaber, kooperatiba eran Ortuellan egiten ari diren 96 etxebizitzaren sustapenean esku hartu du, eta Barakaldon egiten ari diren beste 161 etxebizitzatan, kasu honetan herriko Udalarekin egin den hitzarmenaren bidez.

La Sociedad participa también en la promoción de 96 viviendas en Ortuella mediante cooperativa y 161 viviendas en Barakaldo a través de un convenio con el Ayuntamiento de la localidad.

Azkenik, guztira 1.836 etxebizitza eraikitze 11 jarduketa dira tramitazio eta hirigintzako kudeaketaren fasean daudenak.

Por último, se encuentran en fase de tramitación y gestión urbanística un total de 11 actuaciones para construcción de un total de 1.836 viviendas.

Beste jarduketa batzuk.

Otras Actuaciones

Sozietateak Ugaldebietako zerbitzugunea ustiatzen jarraitzen du. Zerbitzu-estazio bat du A-8 autobidearen alde banatan, Abanto udalerrian.

La Sociedad mantiene la explotación del área de servicio de Ugaldebieta, que cuenta con una estación de servicio a cada lado del autovía A-8 en el término municipal de Abanto.

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.U.

Halaber, ezarri de 2012 urtean zehar Gazteentzako Plentziako Aterpetxea eraikitzeko proiektuaren fasea hasiko dela.

Así mismo, está previsto iniciar durante 2012 la fase de proyecto para la construcción de un Albergue Juvenil en Plentzia.

Kapitalaren aurrekontua.

2012ko ekitaldirako ibilgetu materialean aurreikusitako inbertsioak honako hauek dira:

Orduña	3.000.000
Getxo Elkartegia	1.700.000
Balmaseda Elkartegia	2.000.000
Alonsotegin lursailak	<u>2.000.000</u>
Total	8.700.000

Sozietateak diru-ordainketadun kapitala 3.700.000 eurotan igotzea aurreikusten du. Akziodun bakarrak ordainduko du kopuru hori osorik, eta aurreikusitako inbertsio batzuk finantzatzeko ditu, gainerakoa sozietatearen baliabideen bidez finantzatzeko delarik.

Ibilgetu finantzarioko inbertsioak sozietate esku hartuetan aurreikusi diren kapital zabalkuntzenak dira. Inbertsio horiek Sozietatearen baliabideekin finantzatzeko dira.

Azkenik, sozietateak bere kapitala 4.000.000 euro osagarritan handitu nahi du. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak lursailak emango dizkio Loiu eta Amorebieta-Etxanon, eta izakinak gisa kontabilizatuko da.

2012ko abenduaren 31rako aurreikusitako epe luzerako zorpetzearen zertarakoa honako hau da:

- Pertsona nagusien ekipamenduetarako finantziazioa:
47.032.179
- Elkartegien finantziazioa:
800.000
- Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Planaren epe luzerako obren amaiera:

Presupuesto de capital

Las inversiones previstas en el inmovilizado material para el ejercicio 2012 se detallan a continuación:

Orduña Elkartegia	3.000.000
Getxo Elkartegia	1.700.000
Balmaseda Elkartegia	2.000.000
Terrenos Alonsotegi	<u>2.000.000</u>
Total	8.700.000

La Sociedad prevé un incremento de capital con desembolso dinerario por importe de 3.700.000 euros, a desembolsar íntegramente por el accionista único, que financiará parte de las inversiones previstas.

Las inversiones en inmovilizado financiero corresponden a ampliaciones de capital previstas en sociedades participadas. Dichas inversiones se financiarán con recursos de la Sociedad.

Por último, la Sociedad prevé ampliar su capital social en 4.000.000 euros adicionales, mediante la aportación de terrenos en Loiu y Amorebieta por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, cuyo contrapartida será la rubrica de existencias.

El destino del endeudamiento a largo plazo previsto al 31 de diciembre de 2012 es el siguiente:

- Financiación Equipamientos personas mayores:
47.032.179
- Financiación Elkartegis:
800.000
- Financiación obras a largo plazo del Plan Foral de Vivienda:



2012

Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Azpiegiturak, S.A.U.

15.000.000

- Epe luzerako zorrak, guztira, kreditu-erakundeekin:
62.832.179

15.000.000

- Total Deudas largo plazo con entidades de crédito:
62.832.179

Etorkizuneko konpromisoak.

Ezari denaren arabera Sozietateak jarraian adieraziko diren jarduketak egingo ditu, aldi berean eraginak izango dituztenak aurrekontuen etorkizuneko ekitaldietan:

- Elkartegi baten eraikuntza Orduñan.
- Gazteentzako Aterpetxe bat eraikitzea Plentzian.
- Elkartegi baten eraikuntza Balmasedan.

Ustezko ekitaldi horietarako 2013ko ekitaldian eta hurrengoetan zenbatetsi den inbertsioaren zenbateko osoa 15.300.000 eurokoa da.

Compromisos de Futuro

La Sociedad tiene previstas para el ejercicio 2012 las siguientes actuaciones que tendrían también efectos sobre futuros ejercicios presupuestarios:

- Construcción de un Elkartegi en Orduña
- Construcción de un Albergue Juvenil en Plentzia
- Construcción de un Elkartegi en Balmaseda

El importe total de inversión estimada para esas posibles actuaciones en los ejercicios 2013 y sucesivos asciende a 15.300.000 euros